

## 2019ko lanaldia: Administrazioak iraganean segitzen du eta lan harremanak berriztatzeari uko egiten dio

### Oso aldaketa eskasak dituen proposamena errefusatu dute sindikatu guztiek

Gaur, urriak 11, 2019ko lanaldiari buruz hitzegiteko elkartu gara. Mintzatu bai, baina negoziatu ia ezer ez, Administrazioak jarrera erabat itxia azaldu duelako. Horren ondorioz, sindikatu batek bera ere ez du babestu Pertsonalerako Gerenteordetzaren proposamena, gure iritziz langileen proposamenak ez dituelako aintzat hartzen.

Lana eta familia bateragarriak egiteko eskubidea ahoan izaten dute beti, baina une honetan baztertu dute. Langileok mesfidantzaz tratatzen gaituztenez norberaren inplikazioa sustatzea ere ez dute aintzat hartzen. Horrela, hutsaren hurren bihurtzen dute euren Berdintasunerako Plana.

Zaharkituta dagoen eredupean lan egitera behartzen gaituzte, modernitateaz eta nazioartekotzeaz eten gabe mintzaten diren bitartean.

Inkogruentzia hauetaz luze hitz egin genuen aurreko agirian. Baina ez dugu amore emango, garai berrietara egoki daitezela eta Administrazioa zein langileentzat mesedegarriak diren neurriak ezar ditzatela aldarrikatzen jarraituko dugu.

2019ko lanaldiari buruzko zirkularrak izango dituen aldaketak ondoko lerroetan laburbildu dizkizuegu:

- Urtebete baino gutxiagoko kontratuen kasuan langileek derrigorrez egin beharko dute lanaldi etena. Hala ere, lanaldien karta eskatu ahal izango dute baldin eta kontratuaren/izendapenaren urte osokoa izango dela behar bezala egiaztatuta eta justifikatzen bada, urte naturaletik kanpo egin arren.
- Lanaldi etenaren kasuan, lehengo aldiz lanean hasten diren langileek eta lanpostu aldaketetan hasieratik astearteko arratsaldea izango dute libre. Hala ere, horren ordeaz azteazkeneko arratsaldea eskatzeko aukera izango da.

### Norberaren kontuetarako baimena eta norberaren gestioetarako lizentzia:

	Posible disfrute fraccionado	Bolsa horaria disfrute por día completo
Lanaldi Zatitua	7:30 o.	52:30 o.
Lanaldi Trinkoa	7:30 o.	37:30 o.
Lanaldi Mistoa	7:30 o.	37:30 o.
Ezohiko Lanaldia	7:30 o.	52:30 o.
Telelana	7:30 o.	52:30 o.

.../...

## Lanaldiak:

Lanaldia	Campusa	L. Zaitua	L. Jarraitua	Udaberri eta neguko txandetako L.	Udako L.
Zaitua	Gipuzkoa Eibar	8:03 o.	7:00 o.	6:45 o.	6:45 o.
	Araba Gipuzkoa	8:03 o.	7:00 o.	6:45 o.	6:45 o.
Trinkoa	Araba Bizkaia Gipuzkoa Eibar	-----	7:31 o.	7:31 o.	6:45 o.
Mistoa	Bizkaia Eibar	8:21 o.	7:00 o.	6:45 o.	6:45 o.
	Araba Gipuzkoa	8:22 o.	7:00 o.	6:45 o.	6:45 o.
		J. Mañana y tarde	J. Continua	Jornada Vacaciones Primavera - J. Verano	No presencial
Telelana	Araba Bizkaia Gipuzkoa Eibar	8:03 o.	7:00 o.	6:45 o.	7:42 o.

(\*) Lanaldi bereziak: Araituko dira 2005eko ekainaren 12ko eta 2005eko uztailaren 13ko akordioei jarraituz

Lanaldi desberdinak eskatzeko epea, telelana barne: 2018ko urriaren 15etik 26ra bitartean.

## LEP 2018: Egonkortasun bermerik gabe ez dugu onartuko

**Administrazioak egonkortasun akordioaren babesik gabeko lanpostuen deialdia proposatzen du**

Bilera berean, Administrazioak 2018an, berritze-tasatik eratorritako 38 lanpostekin eginiko LEP-a proposatu digu. Lan Eskaintza Publiko hau kontratodun pertsonal ez egonkorrari zuzenduta egongo litzateke.

**STEILASek beti izan duen jarrerari irmo eutsiko dio:** Administrazioak langileon lanpostuen mantentzea bermatzen duen Egonkortasun Akordioaren zabaltea, edo antzeko neurriren bat, mahai gainean jartzen ez duen bitartean, ez dugu inolaz ere onartuko.

Ezin dugu etxe honetan urteetan lanean izan eta gero, aukera eskaintzen faltan, finkatu ezinda dabilzan kideen lanpostua arriskuan jarri. Izan ere, bidegabeko erabaki baten ondorioz, urte askoren bueltan, inolako babesik gabe kalean gera daitezkelako. Egoera hau ez da inorrenzat onuragarria. Administrazioak ere, Unibertsitatearen kudeaketarako ezinbesteko ezagutzaren jabe diren langileak galduko lituzke. Beraz, LEP-ari bai, baina bermeak eskainita.

Era berean Administrazioari gogorarazi diogu, langile funtzionarioak -zeinen interinitate tasak ere maila kezkagarrietara iritsi diren- oraindik Lekualdatze Lehiaketa, Barne Promozioa zein Lan Eskaintza Publikoa egin gabe dabilzala. Alegazioak aztertuko dituztelaren erantzuna eman digute.

**2016 eta 2017ko LEPen inguruan:** hemendik gutxira oinarri orokor zein espezifikoak, gai-zerrendekin batera argitaratuko dituztela jakinarazi digute.

[www.steilas-unibertsitatea.es](http://www.steilas-unibertsitatea.es)

**Araba**  
Elurreta ikasgelategia, 204  
T 945 01 33 97  
steilas-araba@ehu.es

**Bizkaia**  
Liburutegi eraikina. Leioa  
T 994 601 24 34 / 24 35  
steilas-bizkaia@ehu.es

**Gipuzkoa**  
Ignacio M. Barriola eraikina  
T 943 01 84 36 / 82 81  
steilas-gipuzkoa@ehu.es

# Administratiboak, Bibliotekako Laguntzaileak, Zuzenbideko Teknikariak eta Kimikarien lanpoltsen azterketak

Administrazioak jakin arazi digu Barakaldoko BEC aretoa erreserbatu duela datorren azaroaren 30ean deialdi hauen azterketak egiteko (Administratiboak eta bibliotekako laguntzaileak).

Tekniko Juridikoaren lanpoltsari dagokionez, data jartzeke badago ere laster gauzatuko delakoan gaude. Probak prest dituzte, itzulpenaren zain daude.

Urtea amaitu baino lehenago beste bi lanpoltsa hauen probak egingo dira: Kimikako Teknikari Espezialista (III Taldea) eta Irakaskuntza eta Ikerkuntzarako Maila Ertaineko Teknikaria (II Taldea).

3

## LAN BIRZAILKAPENA

Lan kontratudun arloan goragoko taldei dagozkien eginkizunak dituzten lanpostuak antzemateko epea zabaldu Administrazioak.

Lan kontratudun langileen arloan "Lan birzailkapenerako" hitzarmen-proposamena aurkeztu digu Administrazioak. Hitzarmen horren barruan lanpostuen balorazioa ere badago, eta 2019. urterako 300.000 euroko aurrekontu-saila gordeko dute. Antzerako jardun-edukiera izanik balorazio ezberdinak dituzten lanpostuak antzematea da helburu.

Egoera horretan dauden lanpostuak aurkitzeko laguntza eskatu digute sindikatuoi. Horretarako epea azaroaren 10rean bukatuko da. Kasu horretan zaudela uste baduzu jarri harremanetan STEILASekin, eta zure egoeraren berri helaraziko diogu Administrazioari.

Langileei arrazoa eman duten hainbeste epai-erabakietan datza Administrazioaren jarrera-aldaketa hau. Zentroen Berrantolaketarako lortu genuen hitzarmenak ere badu zerikusia.

Lanpostu horiek hauteman ondoren, behin behineko balorazioa duten lanpostuei (253) behin betiko balorazioa emateko asmoa dauka Administrazioak. Beti ere diru baliabideek ahalbideratzen duten bitartean.

Adarjotze bat da hau. 2005. urtean Administrazioak lanpostu horiek behin betikoz baloratzeko konpromezua hartu zuen. 13 urte igaro ondoren egingo dutela dio... diru nahikoa bada.

AZP arloan ez dugu karrera profesionala egiteko aukerarik izan, barne promozioarik ez dago. Hainbeste urte itxaron ondoren txanpontxo xume horiekin etortzea ez da onargarria.

[www.steilas-unibertsitatea.eus](http://www.steilas-unibertsitatea.eus)

**Araba**  
Elurreta ikasgelategia, 204  
T 945 01 33 97  
steilas-araba@ehu.es

**Bizkaia**  
Liburutegi eraikina. Leioa  
T 994 601 24 34 / 24 35  
steilas-bizkaia@ehu.es

**Gipuzkoa**  
Ignacio M. Barriola eraikina  
T 943 01 84 36 / 82 81  
steilas-gipuzkoa@ehu.es